

SEGURTASUN ARAUAK LAN EREMUETAN



- Ez egon **INOIZ** zintzilik dagoen **KARGAREN AZPIAN**.
- Zure lanak, ahal den heinean, garabiek edo makinak beraien egitekoa amaitu ondoren egin.
- Etengabe **KOORDINATU**, arreta jarri karga eta makinak lokalizatuta izateko.
- Makina edo garabien gidariek ikusi zaitzaketen lekuetan egon beti.



- Ez inoiz egon ibilgailuen (makinen, kamioien, etab.) ekintza eremuan eta **INOIZ EZ** egon ibilgailuen **ATZEAN**.
- Zure lanak, ahal den heinean, garabiek edo makinak beraien egitekoa amaitu ondoren egin.
- ARRETA** etengabe mantendu.
- DEBEKATUA dago** zamalanetarako bakarrik diren **makinetan pertsonak garraiatzea**.
- Zamalanetan zintzilik dauden kargen, makinen eta kamioien ekintza eremutik kanpo mantendu.



- 20 km/h ABIADURA MUGA** errespetatu, bai kaietan eta baita lan-eremuetan ere. Abiadura mugak errespetatu portu eremuko bideetan eta portu eremurako sarbideetan.
- Bidegurutze, lan-eremu eta kaietarako sarbideetan eta biltegietao sarrera-irteeretan arreta berezia jarri.



- Goazen norabiderantz begiratu beti, arreta berezia jarriz olio, likido, zamaketarako egur, zumitz, zulo, desnibelei...



- ERABAT DEBEKATUTA dago instalazio edo zamalanetarako guneetara sartzea ENPRESAKO langileek GAINBEGIRATU edo BAIMENDU gabe.**



- Lanak **2 metro baino gehiagoko altueran** egiten direnean eta babes kolektiborik ez dagoenean, **ERORKETEN AURKAKO SISTEMA** homologatuak erabili behar dira.
- Gutziz DEBEKATUA** dago orga altxatzaileak, jasogailuak, garabiak, etab. pertsonak igotzeko erabiltzea.
- PLATAFORMA IGOTZAILEAK** erabiliz gero, hauek dagokion homologazioa izan beharko dute eta horiek erabiltzeko moduko prestakuntza jaso duten pertsonak erabili beharko dituzte.
- GARRAIOLARIEK** portu eremuan kokaturiko merkantziak egokitzeko plataformak erabili beharko dituzte. **GUZTIZ DEBEKATUA DAGO** erremolke edo kamioietara igotzea plataforma horietatik kanpo.



- Zamalanetarako eremuetan hauts merkantziekin lan egiten denean **BABES-MASKARA** homologatua erabili beharko da.
- Makina eta ibilgailuen ondoan, eta haize-egunetan **SEGURTASUN-BETAURREKOAK** erabiltzea gomendatzen da begietan partikula arraroak ez sartzeko: granelak, txatar-hautsa, egur txirbila...
- BOBINEKIN LAN EGITERAKOAN DERRIGORREZKOA DA BETAURREKOAK ERABILTZEA**



- Gutziz **DEBEKATUA** dago **BILTEGI, TAILER, ITSASONTZI**, eta abarren barruan erretzea.



- Ezin da edan **ALKOHOLDUN EDARIRIK** zamalanetarako eremuetan edo lan lekuetan.

NORBERA BABESTEKO DERRIGORREZKO EKIPAMENDUAK LAN EREMUETAN

NBE	IDENTIFIKAZIOA	OHARRAK
	ARROPA ISLATZAILEA	LAN EREMUAN DERRIGORREZKO ERABILERA
	SEGURTASUN KASKOA	LAN EREMUAN DERRIGORREZKO ERABILERA
	SEGURTASUN OINETAKOAK PUNTA ETA BARNE-ZOLA INDARTZAILEAREKIN	LAN EREMUAN DERRIGORREZKO ERABILERA
	SEGURTASUN ESKULARRUAK	LAN EREMUAN DERRIGORREZKO ERABILERA
	SEGURTASUN BETAURREKOAK	BOBINA, GRANEL ETA HAUTS MERKANTZIEKIN LAN EGITERAKOAN
	ARNAS BABESGAILUA	GRANEL ETA HAUTS MERKANTZIEKIN LAN EGITERAKOAN

LARRIALDIA

PASAIKO PORTUAN LAN ISTRIPUA IZANEZ GERO JOKATZEKO MODUA

LAN ISTRIPU ARINA: KOLPATUA BOTIKINERA ERAMAN
LAN ISTRIPU LARRIA: DYAREN BOTIKINERA DEI URGENTEA

BIDE LAGUNTZA ELKARTEN

606790997
Atelehenetik ostiralera 7,00tik 21,00tara

943464622
Asteburu eta lanez kanpoko orduetan

PREVITEK

- Edozein arazo, larrialdi edo anomalia izanez gero Pasaiaiko Portu Agintaritzako Kaizaingoari jakinarazi behar zaio berehala, behar izanez gero dagokion jarduketak abian jarri ditzaten. (Telefonoa: 943353364).

MERKANTZIAK EGOKITZEKO EGITURAK ERABILTZEKO ARAUAK

- Plataformara **neurrizko abiaduran** sartu.
- NBE** hauek erabili: segurtasun arnesa, segurtasun kaskoa, eskularruak, botak eta arropa islatzailea.
- Gutziz debekatua dago kamioien kartoletara edo egituraren barandara igotzea segurtasun arnesa segurtasun harira elementu erretraktibil baten bidez lotu gabe.** Txatarra plataformatik txukundu, sarea jartzeko listoiak, barrak edo makilak erabili eta ahal dela lan hori bi pertsonen artean egin.
- Erorketen aurkako sistema** erabiliz muturretako bat beti egiturari lotuta izan.
- Txatarra egokitzerakoan txatarra erortzea saihestu. Lurrera eroritako txatarra kartolan jaso beharko da.
- Plataformatik neurrizko abiaduran atera** eta sarea eusteko gomak jarri.

